

Donostian, bildu dira: I. M.^a Etxaide jauna, buru, Lojendio, Arrue ta Irigaray jaun euskaltzaiñak. Etxaniz ta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Loiola-ko erradiotik bialdu dituezan barriak irakurri dira egin daben bertsolarien txapelketearen gaiñean.

“Caja de Ahorros Vizcaina”-ren karta bat irakurri da. Amairu milla peseta bertsolarien txapelketetarako emotea erabagi dabe. Eskerrak emon bekiez.

Urkiola-n Bizkaiko bertsolarien txapelketa bat egin da San Antonio egunez. Txapeldun Julian Martitegui Mañaria-koa gelditu zen.

Euskeraren Aldeko Sailla-k Nafarroatik bialdu dauen karta bat irakurri da. Aurten be Nafarroako bertsolarien txapelketea egin gura dabe eta aurreko urteetan legez Euskaltzaindiaren laguntasuna eskatzen dabe. Oso pozik artzen dira asmo guztiak eta bear dan laguntasuna emon bedi.

Lizardi-saria erabagi da:

“Euskaltzaindiak, berak Lizardi’reñ omenez eratu duen olerki-sariketa aurtengoz erabakitzeko izendatu dituenak bildurik, ao batez erabaki dute:

1’go. Saria “Iribarre ta lore” izeneko olerkiari ematea. Egillea Antonio Bilbao Monasterio jauna da, Morga’koa (Bizkaian).

2’gn. Sariketara agertu diran ogei olerkien artean arkitzen diran batzuen balioa eta edertasuna dala bide artu duen atsegiña adieraztea. Aipamen berezia merezi du, batez ere, “Illobi izengabea” deritzan olerkiak. Egillea, Bilbao’ko Eusebio Erkiaga jauna du.

Donostia’n, 1962 Garagarrillak 8.

Firmatzaileak: Manuel de Lekuona, Antonio Arrue, Luis Mitxelena.”

Zarautzen Garagarrillaren 17-an Lizardi-ren gorazarrez egitekoak zirean jaiak atzeratu egin dira.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

I. M.^a Etxaide

A. Irigaray